

2007KO EKAINAREN 6KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko ekainaren seian, iluntzeko zazpi terdie-tan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, soil soilik aurreko akta onartzeko. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da gaur bertan eta bilkura honen aurretik egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.